



TXAPARRENEKO TUNELA BI HILABETEZ ITXI DA OBRENGATIK

Datorren astelehenetik aurrera, irailaren 25etik aurrera, Txaparreneko tunela erabat itxiko da, Larratxo pasealekuko zoladura berritzeko obrekin jarraitzeko.

Obra eta Proiektuetako zinegotzi Ane Oyarbide sozialistak adierazi duenez, "maiatzetik ari dira hobekuntza-lan horiek egiten; besteak beste, pasealekuko zoladura guztiak berritzeko, 2,20 metroko zabalerako bidegorri bat sortzeko eta oinezkoentzako espaloi bat egiteko.

Obrak dirauen bitartean, gainera, ur- eta saneamendu-zerbitzuak, euri-uren bilketa, argiteria eta beste zerbitzu batzuk berrituko dira. Azken egunotan, segurtasun arrazoiengatik pasealeku osoa okupatzera behartzen duten lanak egiten ari dira 260 metroko tarte batean Intxaurrondoko Adif geltokiaren eta Txaparreneko tunelaren artean.

